# Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**144**

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 9koa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, Justizia Administrazioko Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen lan-poltsak eratzen dituena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduak (2010eko abenduaren 14koa) Auzitegiko Medikuen Kidegoan, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoan eta Laguntza Judizialeko Kidegoan lanpostuak betetzeko denak, indargabetzen ditu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Agindua, otsailaren 4ko Ebazpena, hau da, Justizia Administrazioko Ofizialen, Laguntzaileen, Agenteen eta Auzitegiko medikuen kidegoetan dauden lanpostu hutsak betetzeko, bitarteko funtzionarioak aukeratu, proposatu eta izendatzeari buruzkoa; eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2005eko otsailaren 21eko Agindua, 2003ko azaroaren 20ko Agindua aldatzeko dena.

2010eko irailaren 16ko Aginduaren 2.2 artikuluaren arabera bi lan-poltsa eratuko dira honako kidego hauetako bakoitzerako: Auzitegiko Medikuen kidegoa, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako kidegoa eta Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoa. Lan-poltsa horiek estaldura izango dute Euskal Autonomia Erkidegoaren kudeaketaren eraginpeko destino-zentroetarako. Alabaina, barruti judizial bat edo gehiago, lurralde historiko bat edo Euskal Autonomia Erkidego osoa izendatu daitezke zerbitzuak egiteko.

2010eko irailaren 16ko Aginduari jarraituz, Bulego Judizial eta Fiskalak ebatzi du Auzitegiko Medikuen, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako eta Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen aldi baterako lanpostuak betetzeko lan-poltsak eratzea honako oinarri hauei jarraituz:

1.– Deialdiaren xedea.

1.1.– Justizia Administrazioko zerbitzu eta organo judizialetako lanpostuak aldi baterako betez lan egin nahi duten pertsonen zerrendak eratzea da agindu honen helburua. Zerrenda horiek «lan-poltsak» izango dira.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**144**

RESOLUCIÓN de 9 noviembre de 2010, de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, por la que se procede a la constitución de las bolsas de trabajo de los Cuerpos de Médicos Forenses, Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia.

La Orden de 16 de septiembre de 2010 (BOPV de 14 de diciembre de 2010), de la Consejera de Justicia y Administración Pública, sobre selección, propuesta y nombramiento de personal funcionario interino para cubrir puestos de trabajo de los Cuerpos de Médicos Forenses, Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial deroga la Orden de 20 de noviembre de 2003, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre selección, propuesta y nombramiento de personal funcionario interino para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia y la Orden de 21 de febrero de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se modifica la Orden de 20 de noviembre de 2003.

La Orden de 16 de septiembre de 2010 prevé en su artículo 2.2 la constitución de dos bolsas de trabajo para cada uno de los Cuerpos de Médicos Forenses, Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia. Dichas bolsas tendrán cobertura para los centros de destino cuya gestión realiza la Comunidad Autónoma del País Vasco. Ello no obstante, se podrá designar uno o varios partidos judiciales, uno o dos Territorios Históricos o toda la Comunidad Autónoma del País Vasco a fin de la prestación de servicios.

En virtud de la citada Orden de 16 de septiembre de 2010, esta Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal ha resuelto la constitución de bolsas de trabajo para la cobertura temporal de plazas de los Cuerpos de Médicos Forenses, Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial ajustándose a las siguientes bases:

1.– Objeto de la convocatoria.

1.1.– El objeto de la presente convocatoria es la constitución de relaciones de personas que deseen trabajar en la cobertura temporal de plazas de órganos judiciales, Fiscalías y servicios de la Administración de Justicia. Dichas relaciones se denominarán «bolsas de trabajo».

Deialdian parte hartzen duten guztiei alegatzen dituzten merezimendu guztiak zenbatuko zaizkie, eta horiek egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte, jadanik administrazio honen esku ez badaude.

Merezimenduak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte zenbatuko dira.

1.2.– Bina lan-poltsa eratuko dira Justizia Administrazioko funtzionarioen kidego hauetan: Auzitegiko Medikuak, Prozesu eta Administrazio Kudeaketa, Prozesu eta Administrazio Izapidetza eta Laguntza Judiziala.

1.3.– Deialdi honetan parte har dezaketenak:

Lehenengo lan-poltsan honako hauek hartu dezakete parte:

– Justizia Administrazioko organoetan lan egiten duten edo iraganean lan egin duten pertsonak.

– Halaber deialdian parte har dezakete azken oposizioan, hautatu nahi duten kidegoan, edozein ariketa gainditu dutenek baldin eta plazarik lortu ez badute. Erreferentziako oposizioa Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetan sartzeko helburuz deitutako azkena izango da, eta behin prozesua gainditu duten hautagaien behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta, oposizioa amaitu dela ulertuko da.

Bigarren lan-poltsan honako hauek hartu dezakete parte:

– Gainerako eskatzaileek.

2.– Hautagaien baldintzak.

Poltsetarako hautagaiek Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte. Karrerako funtzionarioek edo lan-kontratuko langile finkoek ez dute poltsetan sartzeko aukerarik izango. Horrez gain, zerrendetan sartzeko honako hau eskatuko da: 2010. urtean 65 urte edo gehiago ez betetzea.

3.– Eskabideak aurkeztea.

3.1.– Deialdian parte hartzeko eskabideak Ebazpen honen I. eranskineko ereduari jarraituz edo 2010eko irailaren 16ko Aginduaren I. eranskinaren araberakoak izango dira eta Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariari zuzenduko zaizkio, 30 egun naturaleko epe barruan, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3.2.– Eskabideak ondorengo idatz-zatian adierazten diren administrazio-bulegoetan aurkeztu behar dira, edo, bestela, bidali daitezke posta ziurtatuaren bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren

A quienes participen en esta convocatoria se les computarán todos los méritos que aleguen, debiendo presentar la documentación para acreditar los mismos, que no obre ya en poder de esta Administración.

Los méritos se computarán hasta la fecha en que termine el plazo de presentación de solicitudes.

1.2.– Se constituirán dos bolsas de trabajo por cada uno de los siguientes Cuerpos de personal funcionario de la Administración de Justicia: Médicos Forenses, Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial.

1.3.– Podrán tomar parte en la presente convocatoria:

En la primera de las bolsas podrá tomar parte:

– Las personas que estén prestando o hayan prestado sus servicios en los distintos órganos de la Administración de Justicia.

– Asimismo, podrán formar parte en la misma aquellas personas solicitantes que, hayan superado alguna de las pruebas de la última oposición del cuerpo al que aspiran y no hayan obtenido plaza. La oposición de referencia será la última convocada para acceso a los Cuerpos al Servicio de la Administración de Justicia, y se entenderá finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva de aspirantes aprobados que hayan superado el proceso.

En la segunda de las bolsas podrán tomar parte:

– El resto de solicitantes.

2.– Requisitos de los aspirantes.

Los aspirantes de las bolsas deberán cumplir los requisitos establecidos en la Orden de 16 de septiembre de 2010 de la Consejera de Justicia y Administración Pública. Las personas solicitantes que tengan la condición de personal funcionario de carrera o personal laboral fijo no podrán acceder a las bolsas. Además se exigirá para el ingreso en las listas: no haber cumplido 65 años o más en el transcurso del año 2010.

3.– Presentación de solicitudes.

3.1.– Las solicitudes, según modelo del anexo I de la presente Resolución o según modelo del anexo I de la Orden 16 de septiembre de 2010 interesando tomar parte en la convocatoria, se dirigirán a la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal y se presentarán en el plazo de 30 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletin Oficial del País Vasco.

3.2.– Las solicitudes deberán presentarse en las dependencias administrativas que se indican en el apartado siguiente o remitirse por correo certificado, conforme a lo establecido en el artículo 38.4 de la

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutakoari jarraituz edo lege horretan zehaztutako beste edozein eratan ere.

3.3.– Eskabide-ereduak honako administrazio-bulego hauetan jaso daitezke:

– Arabako EAT, Gasteiz etorbidea, 18, 01008 Vitoria-Gasteiz.

– Bizkaiko EAT. Buenos Aires kalea 6, 6. 48001 Bilbao.

– Gipuzkoako EAT. Kalkutako Teresa plaza 1, 5. 20012. Donostia-San Sebastián.

– Justizia eta Herri Administrazio Saileko Bulego Judizial eta Fiskalaren helbidea: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

Horrez gain, www.justizia.net eta Justiziako intranetean ere eskuratu ahal izango dira.

3.4.– Hautagaiek eskabidearekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte:

a) Justizia Administrazioan emandako zerbitzuak.

Kontuan hartuko dira eskabideak aurkezteko epearen amaiera arte bete diren zerbitzu guztiak. Ez da beharrezkoa izango Euskal Autonomia Erkidegoan bete diren zerbitzuen ziurtagiririk aurkeztea ezta aitortu direnei buruzkoak ere. Horiek ofizioz aintzat hartuko dira. Dena dela, Autonomia Erkidego honetatik kanpo bitarteko funtzionario gisa egindako zerbitzuak egiaztatzeko, Justizia Ministerioko Langileen Unitateko Burutzak zerbitzuei buruz emandako agiria aurkeztu beharko da edo Justiziaren alorreko konpetentziak transferituta dituzten eta zerbitzuak egin diren autonomia erkidegoetako langileen unitatetan dagokion organoak emandakoa.

b) Titulazioak.

Poltsetan sartu nahi duten hautagai berriek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

– Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

– Kidego bakoitzean sartzeko eskatzen den titulazioaren fotokopia konpultsatua eta bereziki:

• Auzitegiko Medikuen Kidegorako: Medikuntzan lizentziatua.

• Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegorako: Unibertsitateko diplomatuaren titulua, Ingeniari Teknikoari dagokiona, Arkitekto Tekniko titulua edo baliokidea.

Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o por cualquier otra de las restantes modalidades previstas en el referido texto legal.

3.3.– Los modelos de solicitudes serán facilitados en las siguientes dependencias administrativas:

– Unidad Técnica de Gestión (EAT) de Álava, Avda. Gasteiz, 18. 01008 Vitoria-Gasteiz.

– Unidad Técnica de Gestión (EAT) de Bizkaia, Buenos Aires 6-6.º, 48001 Bilbao.

– Unidad Técnica de Gestión (EAT) de Gipuzkoa, Plaza Teresa de Calcuta, 1-5.º, 20012 Donostia-San Sebastián.

– Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal del Departamento de Justicia y Administración Pública, c/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

También se podrán obtener en la página web www.justizia.net y en la intranet de justicia.

3.4.– Los aspirantes deberán acompañar a la solicitud los siguientes documentos:

a) Servicios prestados en la Administración de Justicia.

Se tendrán en cuenta todos los servicios prestados hasta la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. No será preciso aportar certificado alguno de los servicios prestados o que hayan sido reconocidos en esta Comunidad Autónoma del País Vasco, los cuales serán incluidos de oficio. No obstante, para acreditar los servicios como personal funcionario interino prestados fuera de esta Comunidad Autónoma, se aportará el certificado de servicios emitido por la Jefatura de las Unidades de Personal del Ministerio de Justicia, o de los órganos correspondientes de las Comunidades Autónomas con competencias transferidas en materia de justicia donde se hubieren prestado los servicios.

b) Titulaciones.

Los nuevos aspirantes a formar parte de las bolsas, deberán acompañar a la solicitud los siguientes documentos:

– Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

– Fotocopia compulsada de la titulación exigida para el ingreso en cada Cuerpo o acreditación de haberla solicitado y particularmente:

• Para el Cuerpo de Médico Forense: Licenciatura en Medicina.

• Para el Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa: Título de Diplomatura Universitaria, Ingeniería Técnica, Arquitectura Técnica o equivalente.

• Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoan sartzeko: Batxilergo titulua edo baliokidea.

• Laguntza Judizialeko Kidegoan sartzeko: DBHko Graduatu titulua edo baliokidea.

Gainera, Prozesu eta Administrazio Kudeaketa Kidegoko eta Prozesu eta Administrazio Izapidetza Kidegoko lan-poltsetan sartuta dauden hautagaiek egiaztatu beharko dute informatika-baliabideak badakitela erabiltzen baita erabili dituztela ere eta hori egiaztatzeko nahikoa izango da azken urtean Justizia Administrazioko bitarteko funtzionario gisa kidego horietako batean edo beste administrazio batean administrari laguntzaile gisa aritu izana. Halaber eskatuko da azken urtean herri administrazioetan mekanografiako probak edo ofimatikako baliabideen erabiltzaileei buruzkoak gainditu izana edo dagokion titulua aurkeztea. Titulu hori ofizialki onartuta dagoen prestakuntza-zentro batek emana izan behar da.

Izangai guztiek honako hau aurkeztu beharko dute:

– Eskatzailea sartuta dagoen edo sartuta egon nahi duen lan-poltsako kidegora sartzeko beharrezkoak baino altuagoak diren eta oraindik aurkeztu ez diren beste titulazioen fotokopia konpultsatuak.

c) Nahiz eta ez den eskatzen kreditatzen duen agiririk, eskabidean honako hauek adierazi behar dira:

– Sartzeko eskatzen duten funtzionarioen merezimendupeko kidegoetan sartzeko azken deialdiaren probetan parte hartu izana. Erreferentziazko oposizioa azkenekoa eta behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta amaitu zena da.

– Aurreko hiru oposizioetan ariketak gainditu izana.

d) Euskara jakitea.

Ezagutza horiek egiaztatzeko hizkuntza-eskakizuna lortu izana egiaztatzen duen agiriaren fotokopia aurkeztu beharko da.

4.– Balorazioko prozedura.

4.1.– Hautagaiak kidego bakoitzeko lehenengo lan-poltsan eta bigarrenean antolatuko dira meritu orokorren araberako hurrenkerari jarraituz.

Merezimendu orokorrak eta horien baremazioa ageri dira jasota Auzitegiko Medikuen Kidegoan, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoan eta Laguntza Judizialeko Kidegoan lanpostuak betetzeko den Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduaren 4. artikuluan.

4.2.– Berdinketarik badago, meritu horietan ezarritako hurrenkeraren arabera lortutako puntuazio handienak erabakiko du (2010eko irailaren 16ko

• Para el Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa: Título de Bachiller o equivalente.

• Para el Cuerpo de Auxilio Judicial: Título de Graduado en ESO o equivalente.

Además, las personas aspirantes a las Bolsas del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa y Tramitación Procesal y Administrativa deberán acreditar conocimiento y práctica en el manejo de medios informáticos, considerándose acreditación suficiente a tal efecto el desempeño, en el último año, de puestos de personal funcionario interino en ese Cuerpo de la Administración de Justicia o de Cuerpo de Auxiliar Administrativo en otra Administración, así como la superación de pruebas de mecanografía o de manejo de medios ofimáticos en procesos selectivos para el ingreso en las Administraciones Públicas en el último año o la presentación del correspondiente título expedido por un centro de formación oficialmente reconocido.

Todos los aspirantes podrán presentar:

– Fotocopias compulsadas de otras titulaciones que no hayan sido ya presentadas y sean superiores a las necesarias para el ingreso en el Cuerpo de la bolsa en la que esté o desee ser integrado el solicitante.

c) No se requerirá certificado alguno que acredite, pero deberán ser alegados en la solicitud, en su caso:

– La participación en las pruebas de la última convocatoria para el ingreso en los meritados Cuerpos de personal funcionario en el o los que solicita la inclusión. La oposición de referencia es la ultima convocada y finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva.

– La superación de ejercicios en las tres oposiciones anteriores.

d) Conocimiento de euskera.

Será preciso aportar para acreditar estos conocimientos la fotocopia compulsada de la obtención del perfil lingüístico o sus equivalentes.

4.– Procedimiento de Valoración.

4.1.– Se ordenará a las personas aspirantes en la bolsa primera y segunda de trabajo de cada Cuerpo según los méritos generales.

Los méritos de carácter general y su baremación aparecen recogidos en el artículo 4 de la Orden de 16 de septiembre de 2010 de la Consejera de Justicia y Administración Pública sobre selección, propuesta y nombramiento del funcionariado interino para cubrir puestos de trabajo de los Cuerpos de Médicos Forenses, Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial.

4.2.– En caso de empate, éste se dirimirá por la mayor puntuación obtenida según el orden establecido en dichos méritos (artículo 4.4 de la Orden de

Aginduaren 4.4 artikulua). Berdinketak irauten badu, hori apurtzeko lehentasun alfabetikoa hartuko da kontuan, azken enplegu publikoaren eskaintzari zegokion «J» letratik hasita.

5.– Behin-behineko lan-poltsak.

Lan-poltsetan daudenen behin-behineko zerrendak eginda daudenean (datuak eguneratuta eta behar bezala ordenatu eta sailkatuta, honako datuekin: izen-abizenak, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, puntuazioa, hurrenkera zenbakia) Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizko EATetako iragarki tauletan, Justiziako intraneten eta www.justizia.net web orrian argitaratuko dira. Interesatuek 10 eguneko epea izango dute, behin-behineko ebazpenaren aipamena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Giza Baliabideen Zuzendaritzan lan-poltsetako edozein daturi buruzko erreklamazioak aurkezteko.

6.– Behin betiko lan-poltsak.

Alegazioak ebatzi ondoren behin-behineko zerrendak jarri diren leku berberetan jarriko dira behin betikoak, eta behin betiko Ebazpenaren aipamena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Behin betiko lan-poltsetan ezin izango da aldaketarik egin 2010eko irailaren 16ko Aginduak (EHAA, 2010eko abenduaren 14koa) aurreikusitako kasuetatik kanpo.

7.– Errekurtsoak.

Deialdi honek ez dio administrazio bideari amaiera ematen. Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Halaber, deialdi honetatik eratorritako ekintza administratibo guztiak aurkatu ahal izango dira Justizia sailburuordearen aurrean Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako kasu eta moduetan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 9a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

16 de septiembre de 2010). De persistir dicho empate, se tendrá en cuenta, la prioridad alfabética comenzando por la letra «J» correspondiente a la última oferta de empleo público.

5.– Bolsas provisionales.

Una vez elaboradas las relaciones provisionales de los integrantes de las bolsas con los datos actualizados, debidamente ordenados y clasificados, indicando nombre y apellidos, documento nacional de identidad, puntuación y número de orden, serán expuestas en los tablones de anuncios de las EAT de Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz, en la intranet de justicia y en la página web www.justizia.net. Los interesados tendrán un plazo de 10 días naturales desde la publicación de la reseña de la Resolución Provisional en el Boletín Oficial del País Vasco para reclamar ante la Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal sobre cualquiera de los datos contenidos en las bolsas.

6.– Bolsas definitivas.

Una vez resueltas las alegaciones, se expondrán las bolsas definitivas en los mismos tablones que han sido expuestas las relaciones provisionales y la reseña de la Resolución definitiva será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

No cabrá modificación alguna en las bolsas definitivas fuera de los supuestos contemplados en la Orden de 16 de septiembre de 2010 (BOPV 14 de diciembre de 2010)

7.– Recursos.

La presente convocatoria no agota la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Justicia en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Asimismo, cuantos actos administrativos se deriven de la presente convocatoria podrán ser impugnados ante la Viceconsejera de Justicia en los casos y formas establecidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2010.

La Directora de la Oficina Judicial y Fiscal,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

l. ERANSKINA / *ANEXO l*

☐ Prozesu kudeaketa / *Gestión procesal* ☐ Prozesu tramitazioa / *Tramitación procesal*

☐ Laguntza Judiziala / *Auxilio Judicial* ☐ Auzitegi-medikuak / *Médicos forenses*

1.– Norberaren datuak / *Datos personales*.

| |
|---|
| NAN/*DNI* ........................................ |
| Izen-abizenak / *Nombre y apellidos* ........................................<br>Jaioteguna / *Fecha de nacimiento* ........................................<br>Tfnoa./*Tfno*. ........................................<br>Helbidea/*Domicilio* . ........................................<br>Udalerria/*Localidad* . ........................................ PK/*CP* .................... |
| |

2.– Atxiki beharreko dokumentazioa / *Documentación a aportar.*

| |
|---|
| NANaren fotokopia / *Fotocopia del DNI.*<br>Eskatutako tituluen fotokopia konpultsatua / *Fotocopia compulsada de la titulación exigida.*<br>Lan zerbitzuen egiaztagiria / *Certificación de los servicios prestados.* |

3. Aurkezten den titulazioa / *Titulación que se aporta*

| | |
|---|---|
| ☐ Zuzenbide Lizentziatura / *Licenciatura en Derecho*<br>☐ Medikuntza Lizentziatura / *Licenciatura en Medicina*<br>☐ Beste lizentzia bat / *Otra Licenciatura*<br>☐ Zuzenbide Lizentziaturako hiru kurtso /*3 cursos Licenciatura en Derecho*<br>☐ Unibertsitateko Diplomatura, Ingeniari Teknikoa, Arkitekto Teknikoa edo baliokidea / *Diplomatura Universitaria, Ingeniería Técnica, Arquitectura Técnica o equivalente*<br>☐ Batxilergoa edo baliokidea / *Bachiller o equivalente* | ☐ DBHko graduatua edo baliokidea / *Graduado en ESO o equivalente*<br>☐ Lege- eta auzitegi-medikuntzako espezialitatea / *Especialidad en Medicina Legal y Forense*<br>☐ Psikiatriako espezialitatea / *Especialidad en Psiquiatría*<br>☐ Traumatologiako espezialitatea / *Especialidad en Traumatología*<br>☐ Anatomia Patologikoko espezialitatea / *Especialidad en Anatomía Patológica* |

4.– Poltsaren lurralde eremua / *Ámbito territorial de la bolsa.*

Barruti judizial bat edo gehiago, Lurralde historiko bat edo bi, edo Autonomia Erkidego osoa adierazi / *Indicar uno o varios partidos judiciales, uno o dos Territorios Históricos o toda la CAPV*

☐ EAE/CAPV

☐ Araba/*Álava* ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa

Barruti judizialak / *Partido judiciales:*

Araba/*Álava*: ☐ Amurrio ☐ Vitoria-Gasteiz

Bizkaia: ☐ Durango ☐ Barakaldo ☐ Gernika-Lumo

☐ Bilbao ☐ Balmaseda ☐ Getxo

Gipuzkoa: ☐ Tolosa ☐ Azpeitia ☐ Bergara

☐ Eibar ☐ Irun ☐ Donostia-San Sebastián

5.– Justizia Administrazioko Funtzionarioen Kidegoan sartzeko zein deialditan parte hartu den adierazi / *Señale en qué convocatorias para el ingreso en el Cuerpos de Funcionarios de la Administración de Justicia ha participado.*

| Kidegoa<br>*Cuerpo* | Deialdi-urtea<br>*Año convocatoria* | Lehen ariketa.<br>0 punto baino gehiago<br>*Primer ejercicio*<br>*Más de 0 puntos* | Gainditutako ariketa kopurua<br>*Número de ejercicios superados* | Gainditutako ariketa guztiak<br>*Todos los ejercicios superados* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

6.– Ondorengo hizkuntza eskakizunen ziurtagiria / *Titulación acreditativa de los siguientes perfiles lingüísticos*

Oharra: tituluaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. / *Nota: será necesario adjuntar una fotocopia compulsada del título.*

☐ 1.HE / *PL 1* ☐ 2.HE / *PL 2* ☐ 3.HE / *PL 3* ☐ 4.HE / *PL 4*

7.– Prozesu eta Administrazio Kudeaketako eta Prozesu eta Administrazio Izapidetzako kidegoak: baliabide informatikoen ezagutza egiaztatzea eta horiek erabiltzeko trebetasuna (horietako bat markatu). / *Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa y Tramitación Procesal y Administrativa: acreditación del conocimiento y práctica en el manejo de medios informáticos (marcar uno de ellos).*

Oharra: Tituluaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da / *Nota: Será necesario adjuntar una fotocopia compulsada del título.*

☐ Prestakuntzako zentro ofizial batek emandako titulua / *Título expedido por un centro de formación oficialmente reconocido.*

☐ Azken urtean Justizia Administrazioko kidego horietan aritu izana edo beste administrazio batean administrari laguntzaile moduan. / *Desempeño de puestos de personal funcionario interino en ese Cuerpo de la Administración de Justicia o de Cuerpo de Auxiliar Administrativo en otra Administración en el último año.*

☐ Azken urtean herri administrazioetan sartzeko hautaketa probetan mekanografiako probak edo baliabide ofimatikoen erabilpenari buruzkoak gainditu izanak / *Superación de pruebas de mecanografía o de manejo de medios ofimáticos en procesos selectivos para el ingreso en las Administraciones Públicas en el último año.*

Behean izenpetzen duenak lan-poltsan onartzea eskatzen du, eta..................Aginduan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten du. / *El abajo firmante solicita su inclusión en la Bolsa de Trabajo, y declara que reúne las condiciones exigidas en la Orden...............................*

Data eta izenpea / *Fecha y firma*

BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARI ANDRE TXIT ARGIA
*ILMA. SRA. DIRECTORA DE LA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL*